

Joxe Azurmendi eta erlijioa

Pako Sudupe Elorza

Euskal Ikasketetan doktorea



Ez dugu joan zaharra mundualdi honetatik Joxe Azurmendi. Haren kideko jende jantziak, hezkuntza erlijiosoa izandakoek bereziki, asko gogoetatu dute erlijioaz, eta idatzi ere egin dute. Azurmendi ez da nabarmendu erlijioaz oparo idazteagatik, baina *Azken egunak Gandiagarekin* liburuan luze aritu zen.

Liburu horretan, Agirrebaltzategik aditzera eman bezala,¹ Mendebaldeko pentsamenduaren labirintora sarrarazten gaitu, eta erdigunera heldu gabe, labirintotik ezin irtenda uzten gaitu; aldi berean, baina, zenbat aldiz eta zenbat gai interesgarri argitzen dizkigun begiak! Gizarte alorreko beste hainbat sailetan bezala, Azurmendik, erlijioan ere, oso ikuspegi eta ideia bereziak agertu dizkigu, sinestunentzat bezala sinesgabeentzat ere jakingarri gerta litezkeenak.

Lehenik poesia landu zuenez gero, gatozen heriotza sujet duen *Hitz berdeak*-eko poemara. Gandiagak egindako antolaketaren arabera, 1961-1965 artean idatzi zuen, hau da, Arantzazutik Europara (Erromara, Münsterrera) atera baino lehen, apaiztu aurretxoan edo apaiztu ondotik (1964an apaiztu zen). Aipu hauxe du buruan: «Errukarriok: ez gero berpiztu ta ez orain bizi, egingo duzute». Erromako enperadorearen abokatu zen Minucius Felixek K.o. II. edo III. mendean idatzitako elkarrizketa batetik aldatua da. Elkarrizketa Zezilio paganoaren, Oktavio kristauaren eta epailearen artekoa da, eta Zezilio paganoak kristauen aurka idatzitako esaldia da.

Esaldi ondo krudela da: zuek, kristauok, ez zarete berpiztuko hil ondoan, eta, infernuaren beldurrez bizi zaretenez gero, munduan ere ez zarete biziko! Alabaina, poema bera itxaropentsua da:

Heriotza garratza da.
Baina ba dakit nik
zeini diodan sinistu.

Eta bidearen azkenean
zai daukadala
ba dakit.

Ez badakit ere
zer dateken zeruko
zorion betikoa...

Horregatik, negar samin honek
itxaropen lore garbi apal bat
bustitzen du. (Azurmendi 1971a: II-121-122)

Zeruko zoriontasuna nolakoa zatekeen ez jakinagatik, bazekien nori zion sinetsi, eta, horrenbestez, itxaropenaren lorea hezea zuen artean. Badakigu anaidia ofizialki 1990ean utzi zuela, anaikide Joan Mari Torrealdaik eta Joseba Intxaustik bezala. Zer prozesu edo bilakaeraren ondotik, baina?

Gandiagak dio, *Hitz berdeak* poema liburuaren hitzaurrean, Azurmendiren jatorrizko bekatua kezkatia eta eszeptikoa izatea zela.

Gizarte alorreko beste hainbat sailetan bezala, Azurmendik, erlijioan ere, oso ikuspegi eta ideia bereziak agertu dizkigu, sinestunentzat bezala sinesgabeentzat ere jakingarri gerta litezkeenak

Eboluzio luzearen aztarnak

Azurmendik berak aitortu izan zuenez, erlijioa interes gorenetakoa izan zuen, baina hari buruzko gehiena zeharka eta lerroarteka idatzi zuen. Zer dela eta?

[A]rrazoi batzuk pertsonalak ziren, beste batzuk objektiboak eta jite ezberdinetakoak. Hasteko inseguruegi sentitzen nintzela. Nazional-katolizismoaren kritika Euskal Herrian itzuri ezinezkoa gertatu baita, erlijioan jende asko bakoitzak bere bidea bilatu beharrean aurkitu da gure belaunaldian. BAKAN batzuk fundamentalismoan gotorlekutu diren bitartean, beste batzuk fede tradizionala eraberritzen saiatu dira: sozialago, edo espiritualago eta estetikoago, edo biblikoago bihurtzen, naturari edo bizitzari atxekiagoa (oroit Kontzilioaren bultzada). Gazte ez gutxik osoki baztertu egin du erlijioa, indiferentziara, agnostizismora edo 'materialismo' ateistara pasatuz. Neure kasuan, obran zehar nik uste aztarnak utziz joan den eboluzio luzea egon da. (Azurmendi 2013: 273)

Horrenbestez, ez daukagu Azurmendiren eboluzioaren mapa oso bat, zatiak eta zatiak baizik. Lehenbiziko astinaldi alimalekoa Münsterren bizi izan zuen, berak aitorturik. 1965ean Erromara joan zen, eta 1966an, Alemaniako Münsterrera:

Münsterren egin nuen lehen mintegietako baten kariaz Lessing irakurri behar izan nuen (Reimarusen fragmentoak, Nathan, Giza-diaren hezibideaz, Panteismoaren eztabaidako testuak). Zorabiatua utzi ninduela esan liteke. Durduzatua. Nahi bada, ez ziren gauza erabat berriak, kontzeptuak eta arrazoibideak, baina erlijioa kapi-

tuluak frankotasun guztizko, ez esatearren zabarkeriarik naturalenaz, tratatzeko eta eztabaidatzeko modua zen berria Arantzazuko aldean; eta, batez ere, alde guztietatik azpian harrapatzen ninduen uhinaldi masibo bat zen, kolpeka-kolpeka ordura arteko nire barnemundu dena zeramakidan erresakarekin. Ama Birjinari buruz kurtso bat ere lehenbiziko seihilekoan uste dut entzun nuela: oso urruti gelditzen zen Arantzazutik. (Azurmendi 2009: 348)

Ilustrazio alemanaren ordezkari gorenetakoa bat izan zen Lessing berderatzi aldiz aipatzen du Azurmendik *Azken egunak Gandiagarekin*-en, besteak beste, heriotzarekin loturik. Idazlan erlijioso-filosofikoetan, kristau fededunen pentsamendu-askatasuna defendatu zuen. Sinesmena errebelazioetan oinarritzearen aurka argudiatu zuen, eta Biblia hitzez hitz ulertzearen kontrakoa izan zen. Ilustrazioaren «semea» izaki, «arrazoiaren kristautasunean» fidatu zen, erlijioaren espirituan oinarrituko zena eta ez «Letrarekiko leialtasun» ortodoxoan. Ildo horretan, 1774 eta 1778 artean, izengabekoaren zazpi zatiak (Fragmente eines Ungenannten) argitaratu zituen, 1774an hil zen Hermann Samuel Reimarusek idatziak, eta polemika sonatu bat izan zuen.

Nathan, berriz, antzerki lan bat da. Jerusalemen gertatzen da, Hirugarren Gurutzadan, eta Nathan judu jakintsuak, Saladin sultan ilustratuak eta tenplario batek (hasieran anonimoa) judaismoaren, islamaren eta kristautasunaren arteko desberdintasunak nola salbatzen dituzten deskribatzen du. Gai nagusiak adiskidetasuna, tolerantzia, Jainkoaren erlatibismoa, mirarien erabateko arbuioa eta kredo ezberdinen arteko komunikazio beharra dira. Labur esanik, esan liteke oso aintzat hartu zuela Lessing.

Münsterren bizi izan zuen durduzamendu espiritualaren beste erakusgarri batera etorririk, birjintasunari buruzko ikuspegiaz den bezainbatean, tokitan gelditu zitzaizkion Arantzazun ikasitakoak:

Birjintasunaren esanahia, berez, ama ez izatea besterik ez zen, eta antzinako gizartean horregatik ahalkizuna eta lotsa (Lk. 1, 25; ik. 1 Sm. 1, 6-11 ere; Jefteren alabak bi hilabetez negar egiten du 'birjina' hil beharra!, Ep. 11, 37-38; Sofoklesen Antígona orobat ezkongabe eta ondorerik gabe hil beharraz arranguratzen da, etab.), emakumearen lotsa bat alegia, hain zuzen erlijiosoki nolabait erredimitu dena; hortik, neskaren ahultasun, mendekotasuna, laguntza-beharra, Jainkoaren errukiaren begipean egotea. Beraz, erlijioarekin inbertsio bat eman zen hor ere! Edo, bizi gaztea esan nahi zuen, bizitzaren berria, Jainkoaren zerbitzu sakratuak bereizpena (Vestaleak). Edo osoki Jainkoari emana izatea

eta harengan bakarrik izatea sostengu eta itxaropen. Amatasun birjinazkoak amatasun naturalaren miragarritzkoa esan nahi zuen, naturgaindikoa, nolabait ulergaindikoa, haurraren esanahia gero historian apartekoa agitu bada batik bat. Baina birjintasuna eta amatasun birjinazkoa, biak, mendebaleak, batez ere modernoak, jatorritzko esanahi sozial-erlijiosoaz gabetu eta, pietatezko ideia baten ordeztu, ipuin fantastiko bat bihurtu du dena, dogma biologiko-metafisiko bat funtsean zentzu erlijiosorik gabekoa, ez bada Ahalguztidunaren mirari absurdo bat Naturaren kontra. (*Ibid.*)

Halako beste aztoramendu intelektual-pertsonal-psikologikorik segur aski ez zuen sentitu Azurmendik, baina ezin aipatzeke utzi marxismoak, erabat harturik, 60ko hamarkadaren bigarren zatitik hasita, 70eko hamarkadan barrena ekarri zuen astinaldi orokorra gurean ere; eta marxismoaz Azurmendik asko idatzi zuen, eta marxismoaren eta erlijioaren arteko sartu-irtenez ere bai. Saio labur honetan ez diogu horri tarterik egingo, baina ezin genuen aipatzeke utzi (ikus Azurmendi 1971b).

Pio Baroja eta pentsamendu aleman eta anglosaxoa

Münsterreko garaitik urte askotara, Azurmendi helduak Pio Barojaren *Las horas solitarias* (1918) liburuko elkarritzeta hauxe hartu zuen oinarritzat Jainkoari buruzko pentsamendu espainola eta alemana eta anglosaxoa alderatzeko eta desberdintasuna azpimarratzeko:

Recuerdo que en París, en casa de un escritor, conocí a un estudiante de teología sueco; y en el curso de la conversación le pregunté:

–Si fuera posible demostrar que en el universo no hay más que lo natural, la teología desaparecería, ¿verdad?

Y él me contestó, mirándome con su cara fría, de ojos claros:

–No. ¿Por qué?

Estas cosas, la cabeza de un meridional no las explica. Yo no entiendo cómo puede existir una teología sin Dios; pero parece que hay algunos que lo comprenden. (*Ibid.*: 302-303)

Zioen Azurmendik Barojak –haren ustez kantiarra– Kant ez zuela zipitzik ulertu. «Gizon-emakumeak, Naturan legeak eta, beraz, Natura bera ‘ipini’ egiten duen bezalaxe, ipini egiten du Jainkoa ere (‘postulatu’), nola ez?» (*ibid.*: 303). Barojari Natura ‘ipintzea’ egokia gertatzen zitzaion, baina Jainkoa ipintzea edo postulatzea ez. Barojak Schopenhauerren «mundua nire errepresentazioa da» ez zuen ulertu;

Kant ere ez, eta are gutxiago ulertuko omen zuen Hegelen *Gogoaren fenomenologia*. Izan ere:

Hegelen Fenomenologiarentzat Jainko (kristau) tradizionala Ilustrazioan kontsumatu eta hil da: hura, errebelazioaz adina arrazoiaren ezaugarria, Zuzenbide Naturalaren zola, erakunde erlijiosoen iturria bezala politikoen oinarria, lege moralen autorea, azken itxaropenaren bermea, etab., ez da antzinako pentsamenduaren fase guztietan halakoa izan, eta honezkero ahitua den pentsamendu batekoa da, fase historiko iragan batekoa –aurri batzuk beti gelditzen dira–, engoitik hila (Nietzsche etorri baino dextente lehenago). Honezkero politika, Zuzenbidea, komertzioa, moralak, hezkuntza, lurretik gora justifikatzen dira, ez zerutik behera, eskolako teorian nahiz kontzientzia egunerokoaren praxian. Hegel, bada, iragana itxi eta Jainkoa berriro pentsatzeko, munduaren Logosaren Heraklitoren modura itzuli da; eta Hegelekin teologo hegeldarrak. Zerua mortu dago; Jainkoa munduaren barrura etorria da, eta munduarekin batera ari da garatuz, izateratuz. Munduaren historia Jainkoaren historia da, edo viceversa. Hau ez da batere arraroa kultura aleman edo anglo-saxoian. (*Ibid.*: 303)

Mundutik kanpo deus ez dago, eta munduaren historia Jainkoaren historia da. Ikuskera hori ez da arraroa kultura aleman edo anglosaxoian.

Baina Barojarentzat horrek ez zeukan ez buru eta ez hanka, ez eta aita Villasanterentzat ere:

Jainkorik ez ba'dago', Barojak ez du ulertzen estudiante suediarren teologia estudiatzea. Alegia, espainoltxoarentzat –Barojarentzat alegia, berak adierazten duen legez– Jainkoaren ez egoteak ere katolikoa izan behar du. Berdin gertatzen zaio Villasanteri (eta xarmanta da biok bat etortzen ikustea Baroja eta Villasante): «Alemania aldetik etorri zitzaigun filosofia mota bat, Hegelena. Eskola orrek aitortzen du munduan baduela xede bat, aurrerapen lege bat. Xedetasun ori, ordeak, itsua da, ezta bere buruaren berri, eta mundu eta izakien barnean datza. Aurrerapenaren nai edo leia ori da, ain zuzen ere, munduan agintzen duena. 'Dena da posible, Jainkoa bera ere' [...]. Agian, egunen batean, aurrerapenak Jainkoa bera ere sortuko digu [...]. Logomakia oetatik zertxobait ulertzen duenari, nik zorionak ematen dizkiot. Txorakeria galantagorik ez du giza-gogoak sekulan asmatu» (*Jainkoa*, 1962, 54)... (*Ibid.*)

Hortik ondorioztatzen zuen Azurmendik gure artean ezinezkoa zela autore moderno batekin elkarriketatzea, edo oso zaila behinik behin. Frantzia eta Espainia, Eliza eta kristautasuna jartzen ziren auzitan edo jar zitezkeen, baina Jainkoa ez *tout court*. Alemanian M. Pützek (*Gott*, 2007) kontatzen zuenez, Teologiako estudianteen artean, laugarren urtekoek hasiberriei adarra jotzeko buru-hausgarri haxe jartzen

omen zieten: «Jainko bat, badagoena, ez dago»; edo, esango dugu: den Jainko bat, ezin liteke izan» (*ibid.*).

Erlijioaren eta erakundearen artean teinka esentzial bat

Erlijioa beti erakundetua agertzen zaigula aditzera ematen zigun Azurmendik. Beti komunitate erlijioso batek sinesten du, norbanako bakoitzaren erlijioa denik eta pertsonalena izanda ere; beti tradizio batean gertatzen da, eta harekiko harremanetan. Eta

erlijioaren eta erakundearen artean teinka esentzial bat dago, askaera zailekoa: komunitatea zabala denean, erakundeak fedea formula dogmatikoetan finkatzera jotzen du, batasunari eusteko. Fedea legezko artikulua izatera pasatzen da; erlijioa diziplina izateko bidean sartzen da, tradizio soiletan amaitzeko. Eta fededunen herri sakrifikatua, salbazioa irabazten ari delakoan, bere joputza tinkatzen baino ez da ari... (*Ibid.*: 383)

Zinez salaketa gogorra da. Ildo bertsutik, halaber, zenbait fededunen fedearen xalokeriaz mintzo zitzaigun, eta herritar askoren ume garai-ko fede horren erruaren parte bat behintzat eliza kristauena da:

Zenbat fededunek ulertzen du oraindik 'mito' kristaua errealismo gordinenaz eta ezjakinenaz? Baina hori teologo batentzat superstizioa eta paganismoa da fedea baino gehiago, edo ezjakintasun hutsa. Eliza kristauek ez dute jakin dibulгатzen, filosofia modernoak, Izkribu Santuen ikerketek, teologiak berak erdietsi dituzten emaitzak. Kristau arrunt batek ez daki zelan egokitu Adan eta Eba eta jatorrizko bekatuaren mitoa –eder askoa– eta eboluzioaren teoria; edo Egu-berritako Jesusen Belengo jaiotzaren 'egia', eta Jesus historikoa Belenen sekula ez zela egiaz egon, gertakari historikoa. (*Ibid.*: 383-384)

Jesusen delako piztueraz dio, Schillebeeckx teologoari jarraikiz, ezen piztueraren funtsezko esanahia dela, Jesus Jeruselemen kondanatu eta gurutziltzatua izaki, haren segitzaileak izutu eta barreiatu eta zoko-mokoetan ezkutatu zirela. Baina denbora batera, berriro elkartzen hasi ziren, eta komunitatea berregiten, eta uste izan zuten horretarako ausardia eta kementa «Jesus biziak» berak ematen ziela,

Erlijioa beti erakundetua agertzen zaigula aditzera ematen zigun Azurmendik. Beti komunitate erlijioso batek sinesten du, norbanako bakoitzaren erlijioa denik eta pertsonalena izanda ere

Jesus hiletatik berpiztua. Eta, horrenbestez, lehen izutuak zeudenen esplikaezinezko eraldaketa, konbertsio eta indarberritze horixe dela «Jesusen Pizkundeko hizpide guztia, agerpenen-eta mirabilia guztiekin» (*ibid.*: 382). Aldeak alde, abertzaleak esango balu bezala: Arana Goiri bizi da! Berak gidatzen gaitu!

Pentsa-hari beretik, Mendebaleko gizarteetan fedea doktrina bat zela aditzera ematen zigan, eta hori «edo haurrentzat edo espezialistentzat balio izateko bi modutan daukagu formulaturik». Espezialisten doktrinak haurrentzat ez du balio; haurraren doktrinak ez larriarentzat. Ez zela sistema ona zioen. Eta erlijioaren ikasgaia hezkuntzan ematearen aldeko agertzen zen, baina ez edozein modutan; mito erlijiosoarekin batera, erlijioaren kritika eta ateologia ere bai. Platonen astakeria gaitzesten zuen, eta egungo *progresistei* XVIII. mendeko ilustratuen jokatibidea ekartzen zien gogora, esanez bezala erlijioa ikasgeletatik kanpo uztea ez dela aurrerakoia izatea!

(Pertsona larri asko ikusten da bere haurtzaroko Jainkoarekin zailantzan, edo borrokan! Beste edozertan hazi dira, haurretako ideiak problemarik gabe abandonatuz, baina justu kapitulu horretan, edo infantilak izatea edo ezer ez izatea dute alternatiba bakarra nonbait). – Baina momentuko ‘progresistekin’ ere ezin naiz bat etorri: «haurrari ez irakatsi (eman) erlijioa, geroago berak ikasi eta erabaki dezala». (Begiz begi alderantzizkoa ‘ilustratu’ burges klasikoak egiten zuen: bera munduko indeferenteena izanik ere, «haurrari zintzurretik behera erlijioa sartu: baztertuko du geroago». Erlijioa elementu pedagogiko, hots, heziketa moralaren eta ordenaren euskarri). Gure gaurko gizarteak bitartekorik ez dauka erlijioa geroago aurkitzeko eta ikasteko, musika edo literatura geroago deskubritzeko ez daukan bezalatsu, hizkuntza (euskara) geroago deskubritzeko, edo berdin da lagun hurkoa errespetatzen eta maitatzen geroago ikasteko. Platonen astakerietako bat da, Hiriari Homero eta mitologia hezkuntzatik zeharo desterratzeak asmoa. (Imajina al daiteke Atenas bat, mitologiari uko egiten hezkuntza sisteman?). Arazoa, haurrari erlijioa eskaini ala ez eskaini baino gehiago, nola eskaini, iruditzen zait. Eta gure historia erlijiosoan atal osagarriak bai baitira erlijioarekiko etsaitasuna, kritika eta ateologia ere, hori ere eskaini egin beharko da hezkuntzan. (*Ibid.*: 386)

Erljioa Azurmendirentzat «Erabakitsuki hautatu den biziera bat eta unibertso bat» zen; baina askorentzat, gaur egun:

Gaur, gutako askorentzat, ez dira historia luze batetik gelditzen diren momentu ederrak baizik batzuetan, puskailak baino ez maiz, arkeologoak lurrazpian deskubritzen dituenak bezala, iragandako kultura baten absentsia erakusten dutenak beren presentziaz. [...] .

Hor 'itzulia' da norbait, ulertu duena mito erlijiosoak existentziarik ez duenari existentzia ematen diola, errealitate ezkutuari presentzia bat, eta, errealitatea hizkuntzarekin sortzen, moldatzen duen gizabere txit irudimentsu, ez aski adimentsuarentzat, errealitate isil hura esan ahal izateko modu bakarra horixe dela. (*Ibid.*: 387)

Eta axola handiena duena, erlijioaz gogoeta kritikoan aritzean, norbanakoari begira ala komunitateari begira ari zen:

Eta azkeneko itaun handia: Jainkoaz, erlijioaz gogoeta kritikoan ari garenean, geuretzat nahi dugun ala nahi ez dugun zerbaiti begira dihardugu, ala komunitate batentzat, gure herriarentzat nahi dugun edo ez dugun zerbaiti buruz, lehenasuna komunitateak daukala? Kontua da, nola paratu gu komunitate horren aurrean. Hau arazo hau ez da erlijioan bakarrik sortzen. Bat egiten du nire bizitzaren zentzuaren galderarekin. (*Ibid.*)

Kultura erlijiosoaren gainbehera azkarra

Pasarte esanguratsu honetan, ozenki azpimarratzen du Azurmendik mendeetan iraundako kultura erlijioso gotorra denbora ezin laburragoan txikitu eta barreiatu zela gurean, leherketa baten gisara:

Kontua da gure haurtzaroko gizartea –kultura guztia– Euskal Herrian, behiala Atenas klasikoan edo Israelen bezain erlijioak markatua egon dela: politika, familiako bizitza, morala, artea, literatura, filosofia. Eta gero berehalaxe erlijio –gizarte, kultura– hori danbateko batek eraitsi eta desagertua bezala gelditu dela. Handik aurrera banatu egin dira ordura arte bidaide izan ginen askoren bideak. (*Ibid.*: 92)

Neu ere bizi izan naiz, hamasei bat urtera arte, erlijioak sakon markaturiko gizartean; eta oso urte gutxian, Francoren heriotzaren ondoko giro arras politizatu eta marxismoak markaturikoan, desagertuz joan zen tradizio soziologiko erlijioso indartsu hura, jaioteritik urrunduz joan ahala. Lehen hezkuntzan eta institutuan ere, ikasturte gehienetan, ikasgai moduan eman ziguten erlijioa, garai hartan eskuliburuetan ematen zen bezain estereotipatu, eta hamalau urtera arte Aste Santu garaian gogo-jardunak egiten genituen. Egia da nerabezaroan irakurtzen nuela Biblia, hango kontakizunek erakartzen baininduten; alabaina, handik aurrera ez nuen hezkuntza erlijiosorik izan, ez eta inolako konpromiso erlijiosorik ere, eta ezin beraz konparatu apaiztu zirenek-eta pairatu beharra izan(g) zuten danbateko espiritual zirimolatsuekin:

Denok ere birpentsatu beharra edukiko dugu gure historia, gure kultura, gure fedea, gure Jainkoa. Aurre egin beharra edukiko

dugu Europako influentzia intelektual eta sozialei. Zaharrean tematu ez, eta tipus-tapas ateismo agian errazegi, seguru asko antzuegi batera jauzi egin ez duenak ere, aurrietan eta biluzik ikusiko du bere burua, irtenbideren bat nahitaez bilatu beharko du. Gandiaga, beti bere jendearekin, herriarekin, etxe zaharra eraberritzen ahaleginduko da; haren lagunen batzuek beste kultura batzuetara emigratu beste aukerarik ez dute aurkitu. Baina bigarren nabigazio bati Jainkoaren bila denok ekin behar izan diogu, Gandiagak ez gutxiago, gure nondik norakoak berriro meditatuz. (*Ibid.*)

Eta Azurmendiren hitz horietan ezeren salaketarik ez badago ere, Axularren eta Leizarragaren infernuaren deskribapenen harian, aitortu digu, gazte garaian, infernuaren irudipen beldurgarriekin hornitua egon zela euren formakuntza, askatasun espiritualaren eskasian. Axularren infernua:

Hala ere, gure artean maisu espezialista infernuko gorabeheretan Axular barokoa da, teologia espainol sadikoa Salamancan estudiatu duena. [...]. Han gaiztoek, eternitate guztian beti gaizki, diren gaitz guztiak sufrutuko dituzte, «ezta edirenen penarik, eta ez atsekaberik kondenatu batek pairatu beharko eztenik». Eta ez dira hemengoak bezalako penak: «Zeren handiak, bortitzak, eta izigarriak baitira ifernuko pena hek. Hetzaz erran ahal diteke bere moldean, Iondone Paulok zeruko loriaz erran zuena: Eztu egundaino nehork ikhusi, ez enzun, eta ez gogoan iragan, nolakoak izanen diren». (*Ibid.*: 255)

Axular baino murriztagoa erretorika aldetik, baina mamiari doakioenez berdintsu zorrotza Leizarraga kalbinista ere:

«Iffernua da, dio Leizarragak [...] reprobatuéc Deabruequin Iaincoaren hira eta mendequío (!) iustoz eta bidezcoz suffritzen eta perpetualqui suffrituren dutén punitionea eta tormenta: lehenic, bere arimetan, gorputzetaric partitu direnean: guero resuscitaturik, gorputzetan eta arimetan» («Definitioneac eta descriptioneac»). Infernua hori zen guretzat ere, eta holakoxe irudipen beldurgarriekin egon zen ekipatua gure 'kaptibitate' erlijiosoaz gazte garaian, absurdoen artefakto guztiak eztanda egin zuen arte. Beharbada horregatik gure belaunaldia askatasunik gabeko sineste batetik askatasunik gabeko sinestegabe batera 'askatu' da, eta ezin izan du ez horrela egin, dena errekaraz boteaz, asko geratu gabe pentsatzera. (*Ibid.*: 250)

Baina Azurmendik berak asko pentsatu du erlijioaz, fedez, Jainkoaz eta bizitzaren zentzuaz eta balioaz, eta, jakina, Gandiagarekin haren azken egunetan solasean aritzeko puntuan. Harreman usua, lehenbizi, haren poemak antolatzeako enkargua hartu zuenean izan zuen, bera frantziskotarretan apaizteko zegoela, biak ere gazteak zirela, Or-

belaungo poeta ez baitzen ausartzen idatzitako poemak argitaratzera; eta, atzera berriz, handik berrogei bat urtera. Zirkunstantzia horretan, gisakoa zen bizitzaren zentzuaren eta balioaren itauna, eta elkarri ezer esateke, gogoeta egitea:

Oinarrizko formazio intelektual eta espiritual berdintsukoak jatorrian, gure bizialdian arazo berdintsuen aurrean aurkitu gara, erlijiosoak, sozialak, politikoak, etab., baina bi erabaki diferente izan gara. Zergatik?

Orain, heriotzaren aurrean, biok hori pentsatzen dugu. Arantzazuko gela honetan berriro elkarrekin eserita gaude mahaiaren alde banatan, paper idatzi batzuk mahai gainean, *Elorri*-ren argitalpena prestatzen aritu ginenean bezalaxe, franko gazteak biok orduan. Berrogei urte, horrelaxe elkar ezagutu genuela. Gure bizitzaren zentzua eta balioaren galdera berez dator istant batez begien aurrera. Baina inork ez dugu horretaz hitz bat esan. Gandiaga gertu dago laster hiltzeko, kontent bizi osoa bere tokian tinko eman duelako. Nik neuk segurtasunik ez dut ezerena. Konfiantza edo aieru batzuk, baietz esango nuke, gehiago ez dakit. (*Ibid.*: 297)

Azurmendiren delako «konfiantza eta aieruen» eskizari abiaturik, Gandiaga hil 2001ean, eta *Azken egunak Gandiagarekin* idazten zihar-duela, Joxe Arregi frantziskotarrak Jainkoari buruzko galdetegi bat pasatu zion, beste hogeita hemeretzi euskal idazleri bezala.

Jainkoa: zentzuaren bilaketa

Jainkoaz zer esango lukeen galderari honela erantzun zion: «Seguruenik Jainkoa zentzuaren bilaketari erantzuten dion zerbait da» (Arregi 2007: 65). Eta horren segidan adierazi zuen zentzuaren galdera oso konplexua dela.

Alde batera, zentzuaren galdera indibiduala zen Azurmendirentzat, batez ere adin eta aldarte batzuetan, baina askoz ere gehiago zen gizarte eta gizadiarena. Gizartetik kanpora zentzuaren galderari ez zion zentzurik aurkitzen. Baina gizartean nahiko normala zen, eta galdera bera ere guk gizartetik hartua izaten dela zioskun, eta erantzunaren posibilitateak ere gizartean bilatzen ditugula. Askok historian.

Alde batera, zentzuaren galdera indibiduala zen Azurmendirentzat, batez ere adin eta aldarte batzuetan, baina askoz ere gehiago zen gizarte eta gizadiarena

Azurmendi bera ez zegoen gizartearen aurka eta ezta gizartearen mitologiaren aurka ere:

Esan nahi dut: nik mitoa onartua daukat, mezu batzuen hizkera posible bakarra bezala, bere anbiguitateak gorabehera. Hala, zentzua niri gizartetik mintzo ohi zait, tradizioetik, historiatik, Gandiagaren poesiatik, lagunetatik. Eta exijentzia moral baten forma izan lezake, konpromiso batena, beldur edo itxaropen batzuen, gozamen estetiko bakan batena. Gizartearen aurka errebelatu bat ez naiz. Alderantziz, euskal antzinate zaharretik eta Abrahamengandik hasita, eskerronez nago antzinako nahiz gaurko gizarte fededun horiekin. (*Ibid.*: 68)

Horrenbestez, Jainkoa=zentzua, eta zentzua=tradizio eta mitologia diferenteak. Eta horiek dira

nire baitan sartu eta goratik mintzo direnak, elkar ukatzen eta bat-tak bestea isilarazten –denak dira ederrak, denek dituzte beren ongi eta gaizkiak–, azkenean erabaki gabe utziz barruan daramadan Parlamentua. Nik ez daukat seguru asko mito edo zentzu bat absolutua denik. Biblia irakurtzen jarraitzen dut, asko interesatzen zaizkit mitologia grekoak (olinpikoak adina natur erlijioetakoak) edo Mitologia Berri alemana (Goethe, Hölderlin etab.)... Beharbada gauza gehiegiz interesatu izan naiz eta guztiekin hein batean identifikatuz bukatu dut –eta ezeinekin ez osoki–, ‘puskatuta’. (*Ibid.*: 68-69)

Bazituen tradizio hautagoak, kasu, San Frantziskorena, hots, bereagoak sentitzen zituen mundu-zentzuak, «baina zentzu bat absolutua, eta itxaropen bat absolutua, ez naizela iristen edukitzera, aitortu beharko nuke. Gelditzen dena Jainko –zentzu– fragmentatu bat da, Jainko-puskak bezala».

Horregatik, halere, ez zuen bere burua sinesgabetzat jotzen:

Sinesten dutenengan sinesten dudala, esango nuke, nolabait. Eta Arantzazura erromes joan den jende pobreagan sinesten dut. Delfos-eko hormarrian bere izena eskerronez idatzi duen eskla-boagan sinesten dut. Eta beharbada, gaur Jainkoa ulertzen den bezala, fededuna izateko modu bat batzuontzat hori izan litekeela pentsatzen dut. (*Ibid.*)

Azurmendik galdegiten zuen ea zentzuak, hots, Jainkoak, nahitaez izan behar al zuen bakarra, jeloskorra, absolutua, ala kondizio batzuetan bilakatu zen hori? Galdegiten zuen zergatik zentzu bat edo Jainko bat eta ez «zentzu-puskak». Eta honela amaitzen zuen zentzuari edo Jainkoari buruzko gogoeta:

Baina [Jainko] apokaliptikoaz gain agian badago, zintzilik dauden beste Jainko bat, edo Jainko-zati bat. Eta batzuetan pentsatzen dut, agian errore egiptoar, berant judu, berant greko bat dela gure Jainko hau, eta bihar agian berriro plurala izango dela. Eta orduan, agian denboraz ekibokatu naiz, ez Jainkoaz. (*Ibid.*: 70)

Alde batera, esplikatu behar dugu zertaz ari zen Azurmendi «agian errore egiptoar, berant judu, berant greko bat dela gure Jainko hau» idatzi zuenean; eta, bestetik, esan behar da monoteismoa ez baizik eta politeismoa erreibindikatzeko zuela: balioen eta zentzuen eta jainkoen askotarikotasuna eta gizaki guztion elkarrenganako begirunea eta askatasuna.

Politeismoarenak asoziazioz *Euskal Herria krisian* liburura narama. Han, balioen krisian zekusan Euskal Herriari aterabidea eskaini beharrez, honako tesi eskematiko hauxe agertu zuen Azurmendik:

Hona nire tesia laburki, batere originala ez dena bestalde: hezkuntzaren eginkizuna, kulturarena bezala, balio ezberdinekin bizitzeko razionalitate eredu sozial berriak garatzea izango da gaurgero: 1) balioen beren gogoeta berri bat hain zuzen, 2) gizartearen eta libertatearen gogoeta berri baten baitan ordea, 3) elkarbizitza berri bat balioen 'politeismoan' bideratzeko praktikan. (Azurmendi 1999: 22-23)

Eta tesi hori garatzeko, batez ere Isaiah Berlin eta haren *El fuste torcido de la humanidad* liburuari jarraitzen zion. Hemen ezin gara xehe-xehe aritu, baina, ideia bat egiteko:

Pentsamendu europar tradizionala horixe izan da bi mila urte baino gehiagoan, dio Berlinek. Hiru aurretiazko basikoren gainean zegoen eutsita. Lehena: zer egin edo nola bizitza arautu esaten diguten balioekiko arazoei, bazutela guztiek soluzio objektibo bat; eta soluzio hori, soluzio egiazkoa bazen, gizon-emakume guztientzat bera zela. Bi: soluzioa, izan zitekeela eskuratzen zaila, denek ulertzeko subtilegia, etab., baina gizakiaren esku zegoela beti ere –nahiz berak lortuta, nahiz errebelazioak irakatsita–. Soluzioa hor dago, eta borondate oneko gizon-emakumeek ez daukate hartzea besterik. (Gizajende batzuk edo garai batzuk hura ezagutzera iritsi ez badira, hori ez da objektibo bat). Hiru: egiazko balioek eta egiazko soluzioek ezin dute elkar jo, edo elkar ukatu; beraz, balio ezberdinek sistema harmoniko bat osatzen dute. Ikusten badugu balioek elkar ukatzen dutela, edo kultura bateko balio-sistemak beste batekoa ukatzen duela, bietan batek okerra izan behar du. Bat bakarra da zuzena. (Arrazoimenak ez du arrazoimena kontraesaten, edo Jainkoak ez du Jainkoa kontraesaten). Horrela, politeismoa okerra da, herri haiek ebangelizatu eta monoteizatu egin behar dira, etc. Ordena moral objektibo bat, berezko bat, ba-

dago, beraz, unibertsoan (ordena kosmiko objektibo bat, zientziak deskubritzen duena, dagoen bezala), eta gizakiak hura bereganatu behar du objektiboki zuzen bizitzeko. Berezko ordena razional edo natural horrek determinatzen du moral baten objektibitatea. (Azurmendi 1999: 49-50)

Agian erre egiptoar, berant judu, berant greko bat dela gure Jainko hau

Dena historia delako ideiarekin edo denak historia duelakoarekin erara, Jainkoaren ideiak ere bere historia izan du. Labur-labur honela sintetizatu digu Azurmendik, Egiptoko Akenatonen iraultzatik gaurdaino, Jainkoaren ideia, kontzeptu edo mitoaren eboluzioa, eta sorreran eta bilakaeran egondako ikuspegi eta askotariko interesen gurutzaketa:

Akhenatonen iraultza, XIV. mendean K. a., erlijioaren –Jainkoaren– historian zesura bat da, gainezarpen autoritarioa monoteismo estriktoarena izan ez bada ere, eta palazioko iraultza soilik agian, Egipto guztikoa gabe, eta monoteismoranzko tendentzia aurreagotik sumatzen bada ere teologia egiptoarrean, eta monoteismo zinezkoa geroago bakarrik eta Israelen kausitzen bada ere garbi, etab., etab. (J. Assmann, E. Hornung, A. Zivie). Arazo asko dago oraindik ilun ikergai honetan eta nabardura asko beharko litza-teke, baina, grosso modo mintzatuz, jada ez dago dudarik monoteismoaren «inbentua», tradizionalki Moises «egiptoarrari» (J. Assmann) eratziki ohi zitzaiona, eta Jainkoaren beraren errebelazioari zor omen zitzaiona, egiaz Akhenaton faraoiarena dela (1372-1355 a. C.), eta basamortuko «errebelazio» estasikoa gabe, palazioko teologia politiko larderiazko bortitzaren inposizioa. Eguzki –hobeto: Argi– Jainko bakarraren kultuaren gainezarketa aski tiraniko horretan, zenbat egon den gogoeta eta razionalismoa, zenbat faraoiaren pribilegioen kontzeptua eta interes politikoa, zenbat estrategia zentralista, zenbat intriga, zenbat erlijiositate mistiko, hemen ez zaigu axola: kontua da monoteismoaren etorkiaren historia Akhenatonen birraurkikuntzarekin arrunt politiko-profanotua gelditu dela. (Freuden Moisesen interpretazioarekin ados egon beharrik gabe). Nola asmatu (sortu) da Jainkoa?

Funtsean, gure Jainkoaren kontzeptua grekoa da: platoniko aristoteliko metafisikoa; eta mitoa, judua: historikoa (Salbazio Historia, berriz, teologia judu eta mito helenistaren konbinazio bat). Biak ezin dira ongi bat etorri. Miresgarria da hausnarketa grekoa nola doan mailaz maila (presokratikoak, Sokrates, Platon, Aristoteles) Jainkoaren kontzeptua, Absolutua, konkistatzen eta zimendatzen. Gero kristautasuna etorri da, eta San Agustinez gero, mende-baleko filosofiaren historia guztiak adostezina adosteko –kontzeptua eta mitoa– etengabeko Sisiforen lana dirudi Hegelenganaino

gutxienez. Jarraiko XIX. mendearen azken partean eta XX.ean, filosofia garaikide diferenteak amorraturik ibili dira edozein metafisikaren eta Jainkoren birrinketan; eta metafisika horren agerketak behin eta berriro mila buru berrirekin, hidraren antzera, borrokatzen jarraitzen dute oraindik gure egunotan. Beharbada Jainkoarena, kontzeptu gisa hertsiki, kontzeptu imposible bat da, eta kontzeptua baino gehiago Ideia erregulatzaila edo sinbolo bat dela esan beharko genuke Kantekin. Edonola ere, ematen du filosofiarentzat Absolutuak –Jainkoak–, ez dagoela esateko bada ere, egon beharra daukala. Hala, bada, Jainkoaren kontzeptuak bere historia eta posthistoria dizu. – Mitoak arras bestelako historia dauka, filosofiarekin edo kosmologiarekin asko preokupatu gabe. (Azurmendi 2009: 335-336)

Azurmendiren Jainkoaren historia xeheki jarraitu nahi duenak jo beza jarraitzen gataizkion liburura bertara, ezin aberatsagoa baita gai horren garapena. Hemen lagintxo batzuekin etsiko dugu. «Errore egiptoarrak» Akenatonen iraultza frakasatuari egiten zion erreferentzia; alabaina, Azurmendik mundu eta mitologia grekoa izan ditu guztizkoak:

Mitologia grekoari so egiten bazaio, ikusten da, zelan figura mitiko asiarrak eta helendarrak, daimon lokalak edo lanbideetakoak, jainkotxo partikularrak, eboluzionatuz doazen egiazko Jainkoak hiriarenak bilakatuz: hiri bat, Jainko bat (tendentzialki). Askotan nahastu egin dira Jainkoak (Ama Lurra eta suga eta Apolo eta Dioniso, Delfin), edo haien atributuak, edo jaiotzak (tradizio batean Zeus hil ere egiten da, gizon-emakumeak bezalaxe, normalean Jainkoak hilezkorak deitzen diren arren), emeki-emeki influentziarik ezberdinenen pean 'sistema olinpikoa' finkatu den arte, hierarkia teogoniko ordenatuarekin (gizartean tribuak bezalaxe, genealogiaren eskemaz). Hainbat jainkosatxo antzinagoko, Zeusen abentura amodiozko bihurtuz bakarrik integratu ahal izan da sisteman; razionalizazio poetiko bat, horrekin (ik. Herodoto II, 53) geroxeago filosofo razionalisten eskandalua probokatuko bada ere. Non hasten da Jainkoa? Mari, jainkosa ez dirudiena, zer da? Arantzazuko Andre Maria, jainkosa ez dena, zertan da jainkosa gutxiago, titulu horretako beste asko baino? Nola sortzen dira Jainkoak, edo ailegatzen dira Jainko izatera? Egia esan, ez dakigu asko. (*Ibid*: 336)

Delfoseko orakulua

Gandiaga hil zen urteko irailean, Azurmendiren andrelagun Maite eta biak Grezian izan ziren, aspaldi pentsatua zuten bidaian, antzinateko tokiak bisitatzeko xedez. Batez ere zentzu erlijiosoz beteriko lekuak (Olimpo ez urrun, Meteorako komentuak, Ósios Lukás bizantziarra,

Delfoseko orakulua). Han asko ibili ziren, Gandiagak Arantzazu inguruko bideak-eta oinkatzen zituen bezalatsu:

Tesalonikin hasi, Pella eta Vergina, kostan behera Mazedonia zeharkatu –Olinpo mendia beti eskuinean eduki genuen gure gainean, lainopean orain, momentu bat garbi gero, berriro lainotua laster–, Tesalia fruitukorrean barnealdera sartu, Kalambakan Meteora komentuak bisitatu genituen (Islamaren tolerantziaren proba bat gehiago! [komentu ortodoxoak otomandarren menpean ere]). Trikala, Eskulapioren sorterria. Hegoaldera joz, Lamia pasa genuen, elezaharrak Akilesen sorterria nahi duena. Termopilak omen direnak ezin utzi bisitatu gabe. Izen mitikoz beterik dago bidea. (*Ibid.*: 63)

Baina bidaiaren helmuga Delfoseko santutegia zen, Azurmendik forma klasikoz *Delfi* izendatzen duena.

Asteazken bostean, arrats hastera Ósios Lukásen egonalditu eta, iluntzea baino lehen Delfin ginen, hoteleko balkoi aurrean zabal eta berde goitik behera Pleistos haran guztia arrats argitan –«oli-boen itsasoa»– Iteako badia distiratsuraino. Eguna bero egin zuen. [...]. Afalostean, ordea, orri batzuk Pausanias irakurri [*Greziaren deskribapena* liburuaren egile greziarra, K.o. II. mendekoa] eta erretiratu ginenean, jesukristoren argi eta trumoi ekaitza oparitu zigun Zeusek gauerdia baino lehen, euri jasa galantarekin. Ikaratzekoa, benetan. Delfiko hodei zartadak eta deskarga elektriko aparatosoak sonatuak omen direla –hitzez hitz!–, gero jakin genuen. Gau hartan, jainkozkotasunaren ahala Naturaren baitan, zeru-lurrak burrunbaz dardarazten, modu inpresionagarrian bizitu genuen, Olinpoa bere autoritate guztiagaz presente egin nahi izan balitzaigu bezala bisitari arrotzoi. (*Ibid.*: 63-64)

Zergatik hartu zuen Azurmendik Greziako leku behiala erlijioso horiek bisitatzeko erabakia? Berehala ematen digu arrapostua:

Arantzazutik pasea den batentzat, Grezian ibiltzea, Erroman paseatzea bezala, eskolak maitatzen irakatsi zigun munduetan barrena ibiltzea da: haurtzaroko memoria berpiztura, gaztaroko irudipen eta mirespenetara peleginatzea, nolabait izkina bakoitzean mirari bat ezustean deskubritzeko. (*Ibid.*: 64)

Baina ez zen izan soilik gaztetako memoria berpiztea, edota eskola garaiko irudimen eta miresmenetara bidaiatzea, zeren, epe baten buruan, honako honetaz ohartu baitzen:

Baina bi egun haietan ni, zur eta lur benetan ahozabalitu nindue-na, Arantzazuz Gandiagak ikus-asmatzen zuena, orografikoki altzo bat osatzen duen paraje amatarrarena, Arantzazuri bezalaxe Delfiri osoki egokitzen zaiola ikustea izan zen. (*Ibid.*)

Kontuz, ez da Delfoseko natura edo geografia eta Arantzazukoa oso antzekoak direla, zeren, Azurmendik garbi uzten duen bezala, han eguratsa, landaredia eta zerua ere mediterraneoak baitira Arantzazun ez bezala, baina bai altzo eta babesleku:

Goiko estadiora iritsi eta atzeko haizkorriei [harkaitz ‘gorri’ biluziei Azurmendik ‘Aizkorri’ deritze, Zegamakoa izaki] begira eseri garenean bakarrik hasi gara erreparatzen, santutegi osoa nola mendiaren altzoan paisaiari egoki-egokituta jantzia bezala dagoen. Bat-batean nire buruan Bitorianoren ahotsa eta keinuak esku bilduekin habia egiten piztu dira. (*Ibid.*)

Agerpenaren berri emanik bakarrik etsi nahi ezta, Azurmendik Delfos Gandiagak Arantzazu deskribatu zuen xehetasunez deskribatzen du; bestela esanda, luma hartzen du Delfosek Arantzazurekin, orografia aldetik, nolako antza duen marrazteko:

Delfi Parnaso mendien hegoaldeko muturrean dago, autoan errepide bihurgunetsuz itsasotik 15 bat kilometrora, Iteako portutik; airez, lauzpabost kilometrora gehienez, nik uste. Euskal kostako puntu batzuetan bezala, Korintoko golkoan mendiak bulartsu uretatik gora zutitzen dira. Delfi itsasoaren aldean 520-620 metroko altueran dago, behean itsasoari eta aurrez aurre forma leun borobiletako Kirphis masiboari begira, Pleistos ibarraren gainean, esan bezala. Arantzazun legez, erromesak malda neketsua igo behar zuen hemen ere, ibar zabaletik haizkorrendora. (*Ibid.*)

Gandiagak jakin nahi zuen zergatik hautatu zuten paraje hura Ama Birjinari santutegia eskaintzeko; zer zeukan aurkientza hark naturala halako tenplu bat eraikitzeko bertan? Eta inguru haietan, Zekilagako menhirra eta dolmenak eta tumuluak ikusita, konbentzituta zegoen lurrak berak erakusten diola gizakiari non aurkitu behar duen goi-agerpena, eta, ildo berean, Arantzazu santutegia eraiki baino lehenago ere kultu-lekua zela aditzera ematen zioten.

Eta, Azurmendirentzat, Gandiagaren susmoak errealitate bihurtzen dira Delfosen: «[A]ndre-gizonaren historian zehar etenik gabeko jarraipena alegia antzina-antzinate-

**Azurmendik Delfos
Gandiagak Arantzazu
deskribatu zuen
xehetasunez deskribatzen
du; bestela esanda, luma
hartzen du Delfosek
Arantzazurekin, orografia
aldetik, nolako antza duen
marrazteko**

ko Ama Lurraren gurtzatik Ósios Lukáseko Ama Birjinaren elizaraino» (*ibid.*: 66).

Hasiera batean, Delfosen Ama Lurraren («Gaia» edo «Ge») eta haren alaba Temisen kultua egiaztatua omen dago K.a. 1400 aldera, aro mizenikoan. Inbasioen ondotik, IX. mendean, Homeroren gizarte garaikidean hortxe nonbait (jaunen aroa), hasten omen dira agertzen Apolori egindako exvotoak (Jainkoari egindako opariak), jatorrizko jainkosa femeninoari emakumezko idolotxoak bezala orain gizonezkoenak, eta lehen baino garrantzi sozial handiagoa harturik, kultu-leku gisara. Indusketen arabera, VII. mendean harrizko tenplu bat zegoen.

Arantzazu eta Gandiaga gogoan, Delfosen historian barrena egindako esplorazioan eta Greziako Delfosen eta Euskal Herriko Arantzazuren arteko kidetasunak aztertzen enplegatu ondotik, ondorioak ateratzera jotzen du, eta lehenbizikoa da andre-gizonaren existentzian, sinesmenaren bilakaeran zehazkiago, historiak duen garrantzia:

Egunotan, batzuek Lur Amaren forma arkaikoetara itzuli nahi bide lukete. Denbora ukatu nahi izatea da. Historiaren inportantzia esentziala gutxiestea, behintzat, andre-gizonaren existentzian. Eta ez dut esan gura historia hori gustatu behar zaigunik. Baina hor dago, ezin dugu ezabatu geure buruak ezabatzeke, nahitaez haren umeak gara (haren ukoan ere haren ume ageri garela). (*Ibid.*: 70)

Eta, buruenik, paralelismo eta historiaren jarraitutasunean oin harturik, fedeari buruzko galderak eta haren zerizanaren gaineko hipotesia, eta, isil-gordean bezala, Azurmendiren beraren fedearen aitortza modukoa:

Zer da sinesten duenak sinesten duena (ulertu, pentsatu)? Zer differenterik sinesten dute Delfiko Ama Lurraren debotoak antzina eta Ósios Lukáseko Ama Birjinaren debotoak gaur? [Ósios Lukáseko monasterio bizantziarrean tenplu bat dago Ama Birjinari eskainia]. Zeintzuk dira fedearen –erlijioaren– azkeneko oinarri eta iturri biologikoak, genetikoak, kultura historiko diferenteak baino antzinagokoak, agian gizaberearen bilakaeran bilakatuak? Fedea seguruena gauza diferente asko da, eta seguruena beti gauza bertsua, bai orain eta bai lehenago.

Beharbada fedearen forma posible bat gaur, iluntasunen artean, historia horretako haur aitortzea da; historia eta jende horiekin (nahita ere gainditu ezin izango den distantziatik) hala ere eskerro-neko eta solidario sentitzea. Honezkero horixe da apika batzuen-tzat fede posible bakarra. (*Ibid.*)

Mitologia Berri alemana (Goethe)

Goethe filosofo eta literatoaz greko moderno bat zela esaten digu. Eta hari buruzko pasarteak «Nola pentsatu gaur heriotza? Laguntzen digu ezer filosofiak, hiltzen ikastea omen den horrek?» galderaren barruan kokatzen du. Goetherena beste tradizio bat da Azurmendik oso gustukoa izan duena. Horregatik dakargu hona.

Goethek heriotzaren presentzia fisikoari beldur kasik patologikoa izan behar zion. Ezin omen zuen eraman azkenetan zeuden gaixoak ikustea, hiletetara ez omen zen inoiz joaten, ez eta mezenas eta lagun mina izan zuen Schillerrenera ere, ezta bere haurrenetara ere, eta bere emaztea ere ez zuen ikusi nahi izan agonia luze latzean. Pentsamenduan eta hizketan, aldiz, patxada handienaz heltzen omen zion heriotzaren gaiari.

Eta, Humboldték kontatzen duenez, Goethek argitasun eta lasaitasun osoz hitz egiten zuen bere heriotza propioaz. Azurmendik ohartarazten du, apika, azken urteetako Goethe zahar eta jada gaixoaz ariko zela Humboldt. Zein zen bada Goethek, greko moderno gisa, zeukan heriotzari buruzko ikuspegia?

Goethek espirituaren beregaintasun substantziala aitortzen zuen. Harentzat Natura bere baitan Bizitza da, Espiritua. Hau da, ez zuen heriotzan sinesten, espirituaren antzaldaketa eta biziraupean baizik. Behin, ilunabarreko eguzkiari so, iruzkin hau jaulki zuela jasotzen du Eckermannek: gure begi lurtarrek ikusi, eguzkia gainbeheratzen eta sartzen ikusten dute, baina sartu ez da inoiz sartzen –itzaltzen–, baizik ere argi ematen jarraitzen du beste espazio berri batzuetan, eta orobat gure espirituak («eguzkiaren antzekoa»), Naturaren Osora itzulita ere. (*Ibid.*: 288)

Goethek 1780an aldi bat Turingiako oihanean (Kickelhahn bei Ilmenau) pasa zuen, gauak oholezko txabola batean igaroz. Eta, han, txabolako ohol batean, poematxo hau idatzi bide zuen (Azurmendik berak itzulia jatorrizko alemanetik):

Jabala dago mendi gailur
ororen gain,
kukula guztietan doi-doia hats bat
sumatzen duzu.
Txoriñoak basoan isil-isil.
Igurikazu, baina; aurki
jabalduko zara zeu ere. (*Ibid.*: 289)

Eta Azurmendiren iruzkina: «Aurki itzuliko zara Naturaren jabaltasunera, bakera: hiltzea, gure grinen, pozen, irriken Naturaren baitan lo hartzea besterik ez da Goetherentzat. Beste jardunketa modu batean jarraitzeko» (*Ibid.*)

Irakurle gehienok bat etorriko gara Azurmendirekin dioenean gu kristauegiak garela hori horrela sentitzeko:

Natura urtero hiltzen eta pizten da, baina ez dugu sentitzen, hura bizi bada, gu ere bizi garela. Guretzat Natura ez da ezer gure heriotzaren aldean. Gainera, kristautasunak irakatsi digu: zer axola zaigu mundu hori? Gu ez gara mundu horretakoak, beste mundu batera bidean goaz... Gure oraingo kulturen jaio eta hil klinikan egiten dugu, ez Naturan, hain gara espiritualak! Jaiotze-hiltze «animaliak» gure esperientzi mundu naturaletik baztertuak dauzkagu. Natura guretzat ekologiko edo estetikoki kanpotik kontentatu egiten dugun zerbait da, ez berak gu barruan gauzkanak. Ez, bera garena. Heriotzaren gure beldur indibidualista hau kristaua da, ez da grekoa. (*Ibid.*)

Eta, gogoeta horraino ekarrita, horrekin bakarrik etsi ezinik, honela jarraitzen du sentiera primitibo hura egungo hitz modernoekin gogoetatzen, tradizio hori, mitologia hori oso aintzat hartua zuelako erakusgarri:

Mundu horrek ekarri nau eta mundu horrek eramango nau, eta eraldatuko nau beste materia eta forma batzuetan. Agian ez zait iruditzen, xomorroen artean beste xomorro bat naizenik. Baina organismo iraungikor bat naizena, bistan da, beste edozein organismo bezalaxe. Ez da materiaren guztia guztian transformatze hori bakarrik. Gaur banaiz, izan. Mundu horretan naiz. Ni bannaukan espazio bat da unibertsoa, da denbora. Orduan, unibertsoa ez da, ni behin eduki izan gabeko unibertso bat eta denbora bat, sekula berriro izango. Behin izanez gero, unibertsoak dirauen artean, ezizaterik ez dago. Gutxienez, espazioa, denbora, behin eduki izan nindutelako ni edukitzen segitzen dutenak izango dira beti. Hori da guztion esperientzia estrainio etengabekoa: dena doa, ezerk ez dirau, ezer ez da. Eta dena beti da, izan den ezer ez da ezizantzen. Ekintzak ere. Nire egite eta ezegiteen ondorioak hor dira betiko. Nire izateak, egitate bakoitzak, oroipenek, agiantzek, unibertso osoa ukitzen dute, egiten dute. Eta ni orain naizen nitasunaren forman izan ez nadinean ere, izaten jarraituko dute bestelako existentzia baten eran, haietan ni izango naiz unibertsoan sakabanatua. Unibertsoa inoiz ez da zu izan gabekoa izango. Zu jaio baino lehen ere, unibertsoa zu izan zintezera zetorren: mugimendu unibertsalaren betiren-betidanik, haren ituetako bat zu izan zara. Unibertso osoa ezer ez zen, zure existentzia ekoiztera zetorren zerbait baino. Unibertsoa deus ez da zu gabekoa. He-

mendik mila urtera, unibertsoa behin zu izan zintuena, eta zu han egon zintezan izan zena, besterik ez da izango. Behin izan dena, beti da. Bederatzigarren Sinfoniak inarosten gaituen bakoitzean, hedatuz doa unibertsoan –nigan, zugar– Beethovenen ‘arima’, hedatuz doa unibertsoan hunkitu denaren ‘arima’ – zer den ez dakigun hori, baina munduan Beethoven egon delako bakarrik dagoena, eta harekin hunkitu zena dagoelako bakarrik dagoena..., munduan egon; ez ‘ezmunduko’ beste munduren batean, ezpada izatearen beste izateko era batean. [...] Naturako joan-jinean, zeruaren betiereko itzuleran, ur xirriparen kontenplazio soilean beharbada. Keinuak, zantzuak; ez presentzia, ez ebidentzia, ez ziurtasuna. Eskaintza bat besterik ez, esperientzia horiek bizitzaren zentzuaren galderan aintzat hartzeko, pentsatzeko. Mittoak hori egiten baitu –zeinuak interpretatu, zeinu berriak ipini–, besterik ez. (*Ibid.*: 291-292)

Irakurle batzuei ez die batere eragingo, ez ditu hunkituko, baina beste askotxo bai.

Anaia artzainaren eta amaren heriotzako ikuspegia

Beste pare bat kontakizun hunkigarriekin amaituko dut lantxo hau. Azurmendiren anaia gazteenak kontatu didanez, senide zaharrena artzaina zuten, eta hartaz ari da hemen:²

Ezagutu dut artzain bat, urte gutxi zaharragoa neu baino, hiltzeko zegoena minbiziarekin. Ez zeukan inolako kredorik. Onez onean bere buruagaz eta lagunekaz, bizia bere ardi eta mendiekin eman zuen. Artzainaren denboran urtaroen erritmoa bizi esperientzia nagusietakoa izaten da. Mendian ikusten da behean baino hobeto, bizitza nola joanez doan eta zelan etortzen den –belar txiki berdean, hosto berrian, berriro sigi-saga nekaezin abiatzen diren xomorroetan– atzera etorri, udazken eta neguan berriz dena joateko. Negua zelaietan pasa eta, maiatza orduko bordara itzultzen denean, goian oraindik murriz dago belarra, eguzkia baina hasia dago lur azala berotzen. Laster betiko urdingunean ziza xuriak erneko dira, ikusiko da txabola aurreko haitzean urteroko belea biraka –lehenengo bat, gero biak, haitz horretantxe egiten dute habia urtero–, muino oraindik gorrian betiko kamamila usaingozoa zabalduko da. Geroxeago dena berriro desagertuko da. Ja ez zuen egun asko artzainak. Atarian zegoen begira-begira, isilik, zelaian behiak larrean. «Xomorroak», hautsi zuen bat-batean isiltasuna. Eta esplikazio bat zor zuela akordatuz, begira gelditu baikitzaizkion, «txingorrie –jarraitu zuen poliki, bere buruarentzat hizketan–; txingorrie baino haundigoa, eulie; eulie baino haundigoa, xagüe; xagüe baino haundigoa, muxarra; muxarra baino haundigoa, katue; katue baino haundigoa, zakurre; zakurre baino haundigoa, ahuntze; ahuntze baino haundigoa, ardie; ardie baino haundigoa,

behie; behie baino haundigoa, gizona... Danok, bakoitze bere txand-
dan, desagertuko garan xomorroak». Gogoetan ari zen, isilik, eta
hasierako «xomorroak» hura, konklusioa zen: bakoitza bere txan-
dan desagertuko garan xomorroak, denok. Ez bere gogokoa, baina
izan halaxe da, eta naturala ikusten zuen. (*Ibid.*: 291)

Eta, hemen, noski, amari buruz:

Gure amak 97 urte eginak ditu, ikus eta entzumenasko gutxi-
tuak, burua betiko argia ordea, bere haurrek eta haurren haurrek
inguratua eta maitatua bizi da egun osoa. Hala ere, mingostas-
unik batere gabe bai, ezti-ezti, baina ia eguneroko kontua izaten du
«sikîra ailegauta balego nere ordué», «goiko hori nerekin ahaztuta
dôla ematen do», edo antzeko esaldiren bat. Hil nahian bizi da,
bere orduari itxaroten. Halako batean alaba gazteenak galdera
egin dio: «Zuk zer uste dezu izango dala azkeneko ordu hori?». Isilune bat, eta gero: «Izaten den, ba, haize gozo lasai bat? Ba, holakoxe haize bat aurpegitik pasatzen». (*Ibid.*)

Ez dut dudarik mundualdi honetan hainbeste gogoeta egin zuen Joxe Azurmendi ere haize gozo batek eraman zuela natural-natural duela hilabete gutxi, eta haren obra ugaria bezain aberatsa dastatzera jar-tzen garan aldiro, hedatuz joango dela unibertsoan –nigan, zugañ-hunkitu denaren ‘arima’, zer den ez dakigun hori, baina munduan Azurmendi egon delako bakarrik dagoena, eta harekin hunkitu zena dagoelako bakarrik dagoena..., munduan egon; ez ‘ezmunduko’ beste munduren batean, ezpada izatearen beste izateko era batean!

OHARRAK

1. «Azken liburuan Mendebaldeko pentsamenduaren labirinto modukora sarrazten gaitu Joxek; eta batera eta bestera, aurrera eta atzera ibilarazi ondoren, labirintoaren erdigunera iritsi gabe eta labirintotik kanpora irten ezinik uzten gaituela iruditzen zait. 135. orrialdean dioenez, ‘Gandiagaren fedea eta Jainkoa, niretzat arrotza ez, baina bere ebidentzia masiboarekin kasik ikaratzten ninduen zerbait zen. Errealismo ikaragarrikoa’ (135. or.). Uste dudanez, Joxek, errespetu handiz, ez zuen labirintoaren proba hori egitera gonbidatu Bitoriano; edo agian Gandiagak berak ez zion jarraitu nahi izan barrura» (Agirrebaltzategi 2010: 57-58).
2. Azurmendiren anaia Joxemariri eskertzen diot emandako informazio guztia.

BIBLIOGRAFIA

- Agirrebaltzategi, Paulo (2010): ‘Azurmendi, B. Gandiagaren editore ‘iradokitzailea’», *Hegats* 45, 43-58.
- Arregi, Joxe (2007): *Jainkoaz galdezka*, Alberdania.
- Azurmendi, Joxe (1971a): *Hitz berdeak*, Jakin.
- (1971b): ‘Filosofia sobietarraren erlijio kritika. Problema antzean begiratuta’, in Askoren artean: *Erljioa hauzipean*, Jakin, 125-202.
- (1999): *Euskal Herria krisian*, Elkar.
- (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar.
- (2013): ‘Berrogeita hamar urte idazlanean’, *RIEV* 58(2), 273-276.